

Albisteak

Eusko Ikaskuntzako azken berriak

▪ ELERIAren aurkezpena Urdaibaiko eskualdeko legelarietara

Euskal Legelarien Aldizkaria Bermeon izan zen maiatzaren 12an, eskualdeko legelari eta legezaleen artean bere burua ezagutzera ematen. Aurkezpena hurbildu ziren jurista, kulturazale eta hedabideek **Eleriaren** ale bana jaso zuten, eta aldizkariaren inguruko zehaztasunak ere jakin ahal izan zituzten.

Aurkezpena, José Manuel Castells Eusko Ikaskuntzako Zuzenbide Saileko lehendakariak sustatuta, Bermeoko udaletxeko Areto Nagusian egin zen, eta aparteko mahaia osatu zen okasiorako. Izan ere, Bermeoko alkateak, Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburuordeak, Eusko Ikaskuntzako Bizkaiko lehendakariordeak eta Eleriako zuzendariak hartu zuten parte.



Juan Karlos Goienetxea alkate jaunaren harrera abegikorren ondoren, Abel Muniategi Justizia sailburuordearen hitzak etorri ziren. Justiziako arduradunak hizkuntzaren estatus

juridikoaren gaineko gogoeta egin zuen, Euskararen Erabilera Normaltzeko Legearen 9. artikulua hiritar euskaldunei euskaraz auziperatuak izateko eskubidea aitortzen diela gogoraraziz. Ordea, epaileei ez zaie euskaraz jakitea eskatzen, Justiziari dagokionez Euskal Autonomia Erkidegoak ez baitu burujabetzarik, eta Estatuko Gorputzen eskakizunetara egokitzen dira epaileak, berdin izanik Estatuko zein Auzitegitan egokitzen zaien lan egitea. Testuinguru honetan, **Eleriaren** zeregin nagusienetako bat hizkera juridikoa finkatzea dela azpimarratu zuen, eta, behar horretan, bere ardurapean dagoen Sailburuordetzaren laguntza osoa izango duela ere aitortu zuen.

Anton Erkoreka jaunak, Eusko Ikaskuntzaren Bizkaiko arduradunak, elkartearen zeregin nagusiak aipatu zituzten entzuleei, eta egitasmo garrantzitsuenen berri ere eman zuen. Horien artean, Auñamendi Entziklopediaren euskarazko itzulpena eta eguneratzea bidean dela, eta urte bi barru Internet sarearen bitartez kontsulta zuzena egiteko aukera izango dela, dohainik.

Azkenik, Josu Erkorekak, **Eleriako** zuzendari jaunak, Aldizkariaren nondik norakoak azaldu zituen. Egiteko nagusia, diskurtso juridikoa euskaraz eta itzulpenik egin gabe lantzea zela azpimarratu zuen. Zientziaren hizkuntza handiek ez bezala, euskaraz ez du, oraindik orain, gune sendorik sortu ikerkuntza arloan. Zuzenbideari dagokionez, euskarazko seihilabetekari batek ezin du gai espezializatuek bakarrik aritu, baizik eta generalista izan behar du, eta, horrez gain, hausnarketaren ondoan, informazioa ere eman behar du. Aldizkariaren zeregin horiek azaldu zituen ostean. Etorkizunera adi, Aldizkariaren erronka nagusia euskal jurista guztien topagune izatea zela azpimarratu zuen. Azkenik, **Eleriaren** bostgarren alearen aurkezpena egin zuen, esanez Euskararen Erabilera Arauzkotezko Legearen azterketarik mardul eta sakonena gerturatutakoek eskuartearen zeukaten hori bera zela.

▪ Erregioen Komitearen zereginei buruzko jardunaldia

Erregioen Komiteak 2000ko Gobernuarteko Konferentzian azalduko duen jarrera aztertzea izan zen apirilaren 14ean Donostian buruturiko topaketaren helburu nagusia.

Eusko Ikaskuntzaren Zuzenbide Saileko *Euskal Herria-Europa* taldeak antolatuta, eta Eusko Jaurlaritzaren Europako Galetarako Zuzendaritzaren babesarekin, egitarauak goi mailako hainbat aditu elkartu zituen analisi teorikoa burutzeko: Joxerramon Bengoetxea (Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantza sailburuordea), Jose Maria Muñoa (Eusko Jaurlaritzako lehendakariaren Kanpo Harremanetarako ordezkaria eta Erregioen Komiteko kidea), Joaquím Limona y Barcells (Kataluniako Generalitateko Kanpo Harremanetarako zuzendari nagusia), Andreas Kiefer (Austriako Länderretako koordinatzailea Erregioen Komitean), Rafael Bustos (Salamanca Unibertsitateko irakaslea), Eduard Roig (Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea) eta Iñaki Rica (Eusko Jaurlaritzako Europako Arazoetarako zuzendaria).

Maite ZELAIaren kronikan aurkituko duzu jardunaldi hauei buruzko informazioa (89.or.).

Justizia Saitetik zer berri?

▪ 2.000 prozedura egin ziren iaz euskaraz EAEko auzitegietan

Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak emandako datuen arabera, 1999. urtean 2.000 prozedura inguru egin ziren euskaraz Euskal Autonomia Erkidegoko epaitegi eta auzitegietan.

Euskaraz idatzitako prozedura judizialak 715 izan ziren Bizkaian, 668 Gipuzkoan eta 46 Araban, horien artean gehienak instrukzio faseari zegozkilarik (655), 226 arlo penalari, 154 lehen auzialdiari, 82 Entzutegi Probintzialari, eta 47 Administrazioarekiko auziei (47).

EAEko Justizia Auzitegi Gorenak euskaraz aztertutako auziak 137 izan ziren guztira, ia gehienak Administrazioarekiko auzien inguruan (127).

Euskara mintzatuaren kasuan, itzultzaileek euskaraz burututako 287 epaiketetan hartu zuten parte (174 Gipuzkoan, 98 Bizkaian eta 15 Araban).

▪ Justizia eta Burujabetzari buruzko jardunaldiak

Jurisdikzioaren nazioarteko ikuspegi bat emateko asmoz, *Justizia eta Autogobernua* izeneko jardunaldiak antolatu zituzten Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeak (IISJ) eta Eusko Jaurlaritzak. Ehundik gora jurista bildu ziren Donostiako Miramar jauregian, EAEko nahiz atzerriko adituak, bertan Justiziaren Administrazioaren eredu desberdinen azterketa egin eta ondoren eztabaida saioetan hausnarketari ekiteko.

Burujabetzak arlo jurisdikzionala ere kontuan hartu behar duela-eta, jardunaldi hauek hirugarren botere honengan ipini zuten arreta. Erregimen Zaharrean zeukan egoera, gaur eguneko Konstituzioan daukana, nazioarteko Estatu batzuetako ereduak (Suitza, Alemania, EEBB, Kanada...), eta Europar Batasuneko jorratu zituzten adituek. Bertan jasotako emaitzen berri, **Eleriaren** hurrengo ale berezian jasoko ditugu, adituen elkarrizketak nahiz iruzkinak bilduz.

Eta, eskuartean daukazun ale honetan, IISJko zuzendari den Pierre Guibentif jauna hamar urte bete dituen erakunde honi eta Soziologia Juridikoari buruz mintzatu zaigu.

Hizkuntzaren gaineko auziak

▪ UEMA legez kanpokotzat jo du Auzitegi Gorenak

Auzitegi Gorenak legez kanpokotzat jo ditu bai Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA), bai eta bere estatutuak ere, 2000ko otsailaren 10ean emandako Epaia bitartez.

Auzi honek Estatuko abokatuak 1993an Abaltzisketako Udalak onartutako UEMAren estatutuak EAeko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean helegitean izan zuen hasiera. Epaiak bi artikuluko bertan behera utzi zituen: udalerriko hizkuntza ofiziala euskara zela zioena batetik, eta herritarrei udal informazioa euskaraz hutsez jasotzeko eskubidea aitortzen ziena bestetik.

Auzitegi Gorenera jo zuen orduan Estatuko abokatuak, eta, martxoan emandako epaiean, bere alde atera da. Zuzenbide oinarrietan azaldutakoaren arabera, udalek herrilanak egiteko eta zerbitzuak eskaintzeko bakarrik osa ditzakete mankomunitateak, baina “euskara sustatzea ez da herrilan bat egitea, eta oso zalantzazkoa da zerbitzu publiko bat ote denentz”. Izatekotan ere, eta Auzitegi Gorenaren epaiak aurrerago dioenez, Eusko Jaurlaritzaren eskuduntza izango litzateke, baina ez udalena.

Iñigo URRUTIAk aztertu ditu Epai honen nondik-norakoak, ale honetan bertan (33. or.).

▪ Auzitegi Gorenak berrestu egin du autonomia erkidegoetako hizkuntzen ezagutzagatiko merituen araudia

Auzitegi Gorenak iazko azaroan esandakoaren arabera, Karrera Judizialean sartzeko egin beharreko lehiaketetan autonomia erkidegoetako hizkuntzak ezagutzeagatiko merituen trataeraren araudiak ez du berdintasun eskubidea urratzen.

Hala, atzera bota ditu *Francisco de Vitoria* eta *Judicial Independiente* elkargo judizialek Aginte Judizialeko Kontseilu Orokorrak (CGPJ) 1998ko otsailaren 25ean hartutako akordioaren aurka aurkeztutako helegiteak. Aipatutako akordio horrek autonomia erkidegoetako hizkuntza eta Zuzenbidearen ezagutza balioesteko irizpideak ezartzen zituen, zegokion lurraldeko organo jurisdikzionalen lehiaketetarako, eta lehentasunezko meritua gisa hartzen zituen. Bi elkargo horien ustez, ostera, Konstituzioan jasotako berdintasun eskubidea urratzen zuen aurreikuspen horrek.

▪ Euskara, galiziera eta katalanaren erakundeak, minduta Real Academia Española-k toponimiari buruz hartutako erabakiarekin

Real Academia Española-k (RAE) toponimien gaztelerazko bertsioari eman dio lehentasuna ortografiari buruz prestatu duen liburuan, eta erabaki horrek nahigabea sortu du *Euskaltzaindia*, *Institut D'Estudis Catalans* eta *Real Academia Galega*-n.

Ortografía de la Lengua Española liburuko hirugarren eranskinak, Euskal Herria, Katalunia eta Galiziako herrien izenak nola idatzi behar diren jasotzen du, eta gaztelerazko izenak proposatzen ditu horretarako. Ostera, bertan jasotako izenen aurrean beren ezadostasuna azaldu nahi izan dute aipatutako hiru erakundeetako ordezkariak apirilean Bilbon irakurritako adierazpen baten bidez, RAE halako erabakiak hartu baino lehen beraiekin harremanetan jarri ez izana ere salatuz.

Lau puntutako agiri horretan adierazitakoaren arabera, erakundeok onartzen dute leku bati izen bat baino gehiago ematea æLleida eta Lérida, esaterakoæ, baina zera leporatzen diote RAEk egin dituen gaztelerazko itzulpen berriei: batetik, ez zegoela erabilera berri horiek sortzeko beharrik, eta bestetik, itzulpen horiek askotan “hutsal edo exotikoak” izan direla, hots, “hondamendi topoekologikoak”, inolaz ere erabiltzen ez diren erabilera berriak sortu baititu. Era berean, toponimia edo lekuen izenen legezko forma, autoktonoa dela gogorarazi zuten.

▪ Epai baten esanetan, ezin da euskaraz gazteleraren pareko diskurtso juridiko-logikorik egin

Hala adierazi du Bizkaiko Entzutegi Probintzialeko Seigarren Sekzioko presidente den Fernando Grande Marlaskak *Réplica y Dúplica* aldizkariko 2. alean idatzitako iritzi artikuluan. Euskara ikasteko “ahalegin pertsonal serioak” egiten ari dira dio, baina “ni behintzat ziur nago sekula ezingo dela hizkuntza hori gazteleraz egiten diren diskurtso juridiko-logikoen maila intelektualaren parekorik egiteko adina ikasi”.

Botere Judizial elebidun baten alde azaltzen da, baina “gizartea bera ere elebidun den heinean, hiritarrei zerbitzu publikoa berme osoekin eskaintzeko, baina inolaz ere inposaketen bidez”. Hizkuntzaren normalizazioaren gaia “batzuetan garratzasun gehiegiz” gogorarazten zaiela ere adierazi du.

Beste

▪ Legelari euskaldunak saritu ditu Ibilaldiak

Balmasedan ospatutako *Ibilaldia* ekitaldiko antolatzaileek Zuzenbidearen munduko hamahiru legelari euskaldun (notarioak, epaileak eta irakasleak, besteak beste) saritu zituzten, Zuzenbidea euskalduntzearen alde egin duten lanagatik, hots: Iñaki Agirreazkuenaga, Josean Arbelaitz, Xabier Arzalluz, Garbiñe Biurrun, Josu Erkoreka, Jean Etxeberri, Endika Garai, Xanti Goñi, Oleaga sendia, Nekane San Migel, Jaime Tapia, Andrés Urrutia eta Patxi Zabaleta.

Duela lau urtetik hona, *Ibilaldia*-ko antolatzaileek urtero omendu ohi dituzte gizarteko arlo desberdinetan euskara sustatzearen alde lanean dihardutenak.

▪ CGPJek Kasazio Autonomikoa proposatzen du

Justiziaren Liburu Zuriaren jarraipena egiten duen Batzordeak, Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorrak (CGPJ) baitakoak, kasazioa erkidego autonomo bakoitzean azter dadila proposatu du txosten batean, eta Auzitegi Gorena doktrina bateratzera muga dadila. Konstituzioko 152. artikulua hartu du oinarritzat, zeinaren arabera “Auzitegi Gorenaren lehenetasunezko izaeraren kaltetan gabe, lehenengo instantziako organu eskuduna dagoen erkidego autonomoko organu judizialen aurrean agortuko dira instantzia prozesal guztiak”.

Bibliografia

Monografiak

ATXABAL, Alberto & GAMINDE, Eba. *Finantza zuzenbidea*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1999; 366 or.




Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateak Zuzenbide Zibila, Administrazioa eta Merkataritzakoari buruzko liburuak argitaratu ostean, Finantza zuzenbideari heldu zaio txanda, baina oraingo honetan eskuliburu euskaraz pentsatu, landu eta idatzi dute itzulpena jo beharrean. Finantza zuzenbidearen ezaugarri orokorrak, tributuen azterketa, Administrazioak tributu arloan erabil ditzakeen prozedurak, gastuaren eraentza juridikoa eta Kontzertu Ekonomikoa dira bertan aztergai. Gainera, euskara-gaztelania eta gaztelania-euskarazko hiztegia ere badakar.

ATXABAL, Alberto. *Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren Fiskalitatea*, Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, Euskal Gaien Institutua, 1999; 1072 or.



Atxabal jaunaren doktoretza tesian oinarritutako lana da hau. Euskaraz zein gazteleraz, Alberto Atxabalek Foru Zuzenbide Zibilaren fiskalitateak Euskal Herrian dauzkan berezitasunak azaldu ditu liburu honetan, zerga guztiak banan-banan aztertuz.


BENGOETXEA, Aitor & IRURZUN, Koldo. *Zuzenbide Sindikala*, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2000; 178 or.




Unibertsitateko ikasketetan Lan Zuzenbidearen arloa euskaraz ikasteko aukera eskaintzen du liburu honek, ohiki erabiltzen diren

testuliburu nagusien ereduari jarraituz eta Euskal Herriko egoerari aipamen bereziak eginez. Lau ataletan banatuta, askatasun sindikala, langileen ordezkari enpresan, negoziazio eta hitzarmen kolektiboak eta gatazka kolektiboak aztertzen ditu.

CENTRO DE DOCUMENTACIÓN Y ESTUDIOS SIIS. LAN, JUSTIZIA ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA. *Gizarte politikari buruzko legedia: datu basea*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 1999.



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. *Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru-instituzioen xedapen bilduma 1998*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1999.



HAEE. *Obra txikiak*, Oñati: HAEE, 1999; 35 or.



Udal Espedienteen bilduma Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Euskalduntze Zerbitzuak prestatua da, udaleko funtzionario nahiz herritarrek euskaraz aritzeko orduan erabil ditzaten. Hona zer jasotzen duen hauetako liburuxka bakoitzak: gaiari dagokion legeria, agirien zerrenda, inprimaki ereduak, adibideak eta hiztegia.

HAEE. *Obra handiak*, Oñati: HAEE, 1999; 36 or.

HAEE. *Irekitzeko eta lehen erabilerako baimenak*, Oñati: HAEE, 1999; 41 or.


HAAE. *Jarduera sailkatugabeak*, Oñati: HAAE, 1999; 31 or.

HAAE. *Igoka (Jarduera Gogaikarri, Osasungalgarri, Kaltegarri eta Arriskutsuak)*, Oñati: HAAE, 1999; 61 or.

HAAE. *Udala eratzeko espedientea*, Oñati: HAAE; 31 or.


Karmel, 229. zkia., 2000; 158 orri.

2000. urteko lehen hiruhilekoari dagokion aleak honako lana biltzen du, besteak beste: Andres Urrutiaren *Manuel Gorostidi eta Bonifazio Etxegarai: euskara, lege eta epaitegietan*.



Z.A. *Elkarrekin lanean XXI. mendeko Europa eraikitze aldera*, Oñati: HAAE, 1999; 395 or.

Puntuz puntu eta oso-osorik, Nazioarteko Europako Mugimenduko Ekimen Lantaldeak egindako txostena jasotzen da liburu honetan, 1998ko maiatzean Europako Biltzarrean eztabaidatu eta onartu zena. Lau hizkuntzatan dator txostena: euskaraz, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez. Bertan, Europar Batasuna federala, demokratikoa, eraginkorra eta irekia izan dadin lagungarriak izan daitezkeen proposamen eta gogoeta batzuk plazaratzen dira Europak izan behar duen etorkizunaren inguruan.



Artikuluak

ATXABAL RADA, Alberto. *Ekonomi Ituna edo Kontzertua*. In: *Administrazioa Euskaraz*, 28. zkia., Gasteiz: HAAE, 2000; 13-15 orr.

Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko finantza harremanak arautzen dituen sistemari buruzko erreportaiak prestatu du Alberto Atxabalek. Horrela, modu argi eta ulergarrian, hamar puntutan Ekonomi Itunari buruz jakin beharreko guztiak jaso ditu Deustuko Zuzenbide Fakultateko irakasleak (zer den, noiztik daukagun, zertaz ari den, kupoa zer den, eta abar).



Tesien txokoa*

Administrazio Zuzenbidea

L'HOMME, Patrick: *Arrisku nagusia eta zoru eskubidea*^F. U: Pau. Ur: 1999. Z: Jean-Claude Douence.

LONNE, Frédéric: POSen legezketasunaren inguruko auzia: zoruak okupatzeko planen deszentralizazioari muga juridikzionalak ipintzeari buruzko hausnarketa^F. U: Pau. Ur: 1999. Z: Philippe Terneyre.

Finantza eta Zerga Zuzenbidea

ARANA LANDIN, Sofia: *Nazioarteko lotura daukaten eragiketen zergazko trataera*. U: EHU. Ur: 1999. Z: Ernesto Lejeune Valcárcel.

ATXABAL RADA, Alberto: *Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibileko fiskalitatea*. U: Deustu. Ur: 1999. Z: Santiago Larrazabal Basáñez.

Lan Zuzenbidea

FREGA NAVIA, Ricardo: *Kirolari profesionalen lan harremana*. U: Deustu. Ur: 1999. Z: Francisco Lledó Yagüe.

SERRANO ARGÜESO, Mariola: *Lan Zuzenbidearen iturrien teoriaren azterketa berri bat*. U: Deustu. Ur: 1999. Z: Manuel M^a Zorrilla Ruiz.

TERRADILLOS ORMAETXEA, Miren Edurne: *Langileen ordezkartza kolektiboa egitura konplexuko enpresetan*. U: EHU. Ur: 1999. Z: Juan Pablo Landa Zapirain.

Merkataritza Zuzenbidea

LARRIEULE, Martine: *Kontsumorako Zuzenbide frantsesa Zuzenbide komunitarioaren aurrean*^F. U: Pau. Ur: 1999. Z: Bernard Saintourens.

LLORENTE GÓMEZ DE SEGURA, Carlos: *Garraio kumulatiboaren eraentza juridikoa*. U: NU. Ur: 1999. Z: Mercedes Vérguez Sánchez.

MARTÍN OSANTE, José Manuel: *Itasuntziaren jabearen kontratuz kanpoko erantzukizuna itsas abordatzearen ondorioz sortutako kalteen aurrean*. U: EHU. Ur: 1999. Z: José María de Eizaguirre Bermejo.

MEDINA CEPERO, Juan Ramón: *Ingurugiroaren gaineko eragina eta enpresa askatasuna*. U: NU. Ur: 1999. Z: Teresa Armenta; Faustino Cerdón Moreno.

MEZQUITA GARCÍA-GRANERO, María Dolores: *Kreditu refakzionarioa berme gisa kalifikatzea*. U: NUP. Ur: 1999. Z: Enrique Rubio Torrano.

Nazioarteko Zuzenbidea

CANEDO ARRILLAGA, M^a Pilar: *Lehiakortasuna babesteko prozedura Zuzenbide Komunitarioan: proportzionaltasun printzipioaren eta antzeko beste batzuren azterketa*. U: Deustu. Ur: 1999. Z: Alfonso Luis Calvo Caravaca.

GIL BAZO, M^a Teresa: *Asilo eskubidea norbanakoaren eskubide subjektibo gisa Nazioarteko Zuzenbidean, Zuzenbide europarrari aipamen berezia eginez*. U: Deustu. Ur: 1999. Z: Fernando M. Mariño Menéndez.

* Euskal Herriko unibertsitateetan defendatutako Zuzenbideko Doktorego Tesien zerrenda; hau da, Euskal Herriko Unibertsitatean, Nafarroako Unibertsitatean, Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Deustuko Unibertsitatean eta Pauko Unibertsitatean.

Laburduren zerrenda:
U: Unibertsitatea
Ur: Urtea
Z: Zuzendaria

Unibertsitateak:
Deustu: Deustuko Unibertsitatea
EHU: Euskal Herriko Unibertsitatea
NU: Nafarroako Unibertsitatea
NUP: Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Pau: Pauko Unibertsitatea

Tesien hizkuntza:
F: Frantsesa
E: Euskara
Gazteleraz aurkeztutakoek ez daramate ikurtxorik

LUTFI ABU HMAIDAN, Reema: *Jordaniako ekonomian politika sozial bat garatu eta bateratu ahal izateko kanpo eta barne baldintzak*. U: EHU. Ur: 1999. Z: Noé Cornago.

SILVA FILHO, Delio Mendes da Fonseca: *Globalizazioa eta bazterketa. Recife-ko eskualde metropolitarraren kasua*. U: Deustu. Ur: 1999. Z: Jon Leonardo Aurteneche.

SOROETA LICERAS, Juan: *Herrialdeen autodeterminazio eskubidea, azken gertakarien aurrean. Mendebaldeko Sahararen kasuaren azterketa*. U: EHU. Ur: 1999. Z: Carlos Fernández de Casadevante.

Prozedura Zuzenbidea

BENITO BUTRÓN, Juan Carlos: *Legearen interesean egindako helegitetik orden sozialeko doktrina bateratzeko helegitera*. U: Deustu. Ur: 1999. Z: Manuel M^a Zorrilla Ruiz.

ETXEBERRIA GURIDI, Patxi: *Gorputzeko esku-hartzeak eta ADNaren analisiak prozesu penalean*. U: EHU. Ur: 1999. Z: Silvia Barona Vilar.

Zuzenbidearen Filosofia

CRUZ ORTIZ DE LANDAZURI, Luis M^a: *Zuzenbidea eta itxaropena. Jeremy Bentham-en teoria juridikoaren interpretazio bat*. U: NU. Ur: 1999. Z: Pedro Serna Bermúdez.

Zuzenbide Penal

CARDET, M. Christophe: *Kontrol judizial sozio-hezitzailea*^F. U: Pau. Ur: 1999. Z: Robert Cario.

CARNEVALI RODRÍGUEZ, Raúl: *Europar Batasuneko estrategia eta Zuzenbide zehatzailea. Ordenamendu penal nazionaletan dauzkan ondorioak*. U: NU. Ur: 1999. Z: Jesús M^a Silva Sánchez.

GUYOT, Isabelle: *Atzerritar espetxeratu*^F. U: Pau. Ur: 1999. Z: Robert Cario.

MBANZOULOU, Paul: *Frantziako kartzelotako zaindarien zeregina kartzelotuta daudenen birgizarteratze*^F. U: Pau. Ur: 1999. Z: Robert Cario.

SILVA SALCEDO, Paulina Alejandra: *Giza enbrioi aurreinplantatuaren babes penala*. U: Deustu. Ur: 1999. Z: Carlos M^a Romeo Casabona.

Zuzenbide Politiko

BOURREL, Antoine: *Estatuko Kontseiluaren kasazioa, epaileek auzia ebazteko daukaten eskuduntzaren aurrean*^F. U: Pau. Ur: 1999. Z: Philippe Terneyre.

CIANCIARDO, Juan: *Funtsezko eskubideen gatazka*. U: NU. Ur: 1999. Z: Pedro Serna Bermúdez.

HAKANSSON NIETO, Carlos Guillermo: *Peruko Konstituzioko gobernu mota*. U: NU. Ur: 1999. Z: Antonio Carlos Pereira Menaut.

LARENA BELDARRAIN, Javier: *Erlijio askatasuna eta bere babesaren norainokotasuna espainiar ordenamendu juridikoan*. U: Deustu. Ur: 1999. Z: Francisco Lledó Yagüe.

PASCUAL LÓPEZ, Silvia: *Bizilekuaren bortxaezintasuna Zuzenbide espainiarrean*. U: Deustu. Ur: 1999. Z: Alfonso Carlos Sáiz Valdivieso.

TOMÁS CARRASCO, Baltasar: *Eskuduntza domestikoaren printzipioa naziokotasunaren ikuspegitik, eta bere ondorioak*. U: NUP. Ur: 1999. Z: Romualdo Bermejo García.

ZOCO ZABALA, Cristina: *Legaltasun eta berdintasuna, arauak aplikatzeko orduan: KEko 14 eta 24.1 artikuluen arteko berdintasun partziala*. U: NU. Ur: 1999. Z: Juan Luis Requejo Pages.

Zuzenbide Zibila

EMALDI CIRIÓN, Aitziber: *Aholku genetiko eta bere ondorio juridikoak*. U: Deustu. Ur: 1999. Z: Carlos M^a Romeo Casabona.

FAJARDO FERNÁNDEZ, Francisco Javier: *Prezio zehazgarriarekin egindako salerosketa*. U: NU. Ur: 1999. Z: José Antonio Doral García.

GUTIÉRREZ BARRENENGOA, Ainhoa: *Ezkontideen ondasunak ganantzial edo pribatiboak izatea borondatez zehaztu ahal izateko aukera*. U: Deustu. Ur: 1999. Z: Francisco Lledó Yagüe.

HERBOSA MARTÍNEZ, Inmaculada: *Hipotekaz bermaturiko zorraren onarpena.* U: Deustu. Ur: 1999. Z: Manuel Amorós Guardiola.

MONJE VALMASEDA, Oscar: *Banatu gabe dirauen oinordetza: Zuzenbide Zibil espainiarraren ezaugarrien eta konfigurazio juridikoaren azterketa kritikoa.* U: Deustu. Ur: 1999. Z: Francisco Lledó Yagüe.

NANCLARES VALLE, Javier: *Ordainketagatiko subrogazioa Zuzenbide Zibil espainiarrean.* U: NU. Ur: 1999. Z: Luis Arechederra Aranzadi.

TOMÁS MARTÍNEZ, Gema: *Oinordetzako zorrak ordaintzeko esleipena.* U: Deustu. Ur: 1999. Z: Francisco Lledó Yagüe.

Bidean dauden Legeak*

1. Eusko Legebiltzarra

1.1. Lege proiektuak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Argitalpena
Euskadiko Kooperatiben Legea aldatzekoa	2000.02.15	2000.02.18
Bidaiariak Herri barruan eta Herriz kanpo Kotxez Garraiatzeko Zerbitzu Publikoa arautzen duena	2000.03.07	2000.02.18
Gizarte Bazterkeriaren Aurkako Legea aldatzekoa	2000.05.09	2000.05.12
Informatikako Ingeniarien Euskadiko Elkargo Ofiziala Sortzekoa	2000.05.09	2000.05.12
EAEko 1996. urterako Aurrekontu Orokorren Kitapena Onartzen duena	2000.05.30	2000.06.15
EAEko 1997. urterako Aurrekontu Orokorren Kitapena Onartzen duena	2000.05.30	2000.06.15

1.2. Lege proposamenak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Proposatzailea	Argitalpena
Legegintzarako Herri Arioari buruzko ekainaren 26ko 8/1986 Legea aldatzekoa	1999.04.26	Ezker Batua/Berdeak Talde Mistoa	1999.04.30
Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea aldatzekoa	2000.05.16	Euskal Talde Popularra	2000.05.19
EITB Sortzeko 5/1982 Legea aldatzekoa	2000.05.16	Euskal Talde Popularra	2000.05.19
Euskal Herriko Derrigorrezko Desjabetzerako Lurralde Epaitegiak Sortzeko azaroaren 20ko 8/1987 Legea aldatzekoa	2000.05.23	Euskal Talde Popularra	2000.05.29
Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak arautzen dituen 1990-06-15eko Legea aldatzekoa	2000.05.23	Ezker Batua/Berdeak Talde Mistoa	2000.05.29
Gizarte Bazterkeriaren Aurkako Legea aldatzekoa	2000.05.30	Euskal Sozialistak	2000.06.02

1.3. Herri ekimenezko Lege proposamenak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Proposatzailea	Argitalpena
Gizarte Eskubideen Agiritarakoa	96.12.20	Longarte Fdez. de Gamarra eta beste batzuk	97.12.31

* OHARRA: Irakurle, lege proiektu hauek 2000ko ekainaren 19an zeuden egoeran agertzen dira tauletan. Litekeena da aldizkariaren argitarapenera bitarteko denboran horietakoren bat lege bihurtu izana.
ITURRIAK: Eusko Legebiltzarreko eta Nafarroako Parlamentuko mahaiaik.

2. Nafarroako Parlamentua

2.1. Foru Lege Proiektuak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Proposatzailea	Argitalpena
Nafarroako Lanbide Elkarteen Foru Legea	98.01.26	98.02.02	Lege -1/98

2.2. Foru Lege Proposamenak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Proposatzailea	Espedientea
Vascuencearen abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aldatzekoa	98.04.28	CDN	Pro-9/98
Ogasun Lokalei buruzko 2/1995 Foru Legeko 155. Artikulua aldatzekoa	98.05.21	SPN, CDN eta IU-EB	Pro-10/98
Lurraldearen Antolakuntza eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legea aldatzekoa	98.06.11	Ezker Abertzalea	Pro-11/98
Vascuencearen abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aldatzekoa	98.07.02	Errazti Esnal and. eta Ciáurriz Gómez jn. (Mistoa)	Pro-12/98
54/1998 Foru Dekretu Legegilea, otsailaren 16koa, Laborantzako Finantzetari buruzko Lege Mailako Xedapenak jasotzen dituen Testu Bateratua onartzen duena, aldatzekoa	98.09.16	CDN	Pro-13/98
San Francisco Javier Zentro Psikogeriatrikoaren Funtzionamenduaren Eraentzari buruzkoa	98.09.18	Ezpeleta Martínez jn. (SPN)	Pro-14/98
35 Orduko Laneguna Finkatzearen Aldeko eta Laneko Denbora Banatzeko Neurri Publikoei buruzkoa	98.09.21	SPN	Pro-15/98
Lurjabeek Lurzorua Derrigorrean eta Doan Lagatzeagatik Sortutako Hirigintza Kargetan Administrazioa Parte Hartu Behar Izatetik Aske Uzteari buruzkoa	98.09.30	SPN	Pro-16/98
Ekainaren 16ko 10/98 Foru Legea aldatzekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzkoa, Administrazioarekin Kontratatzeko Baldintza Batzuen Inguruan	98.10.19	IU-EB	Pro-17/98
Hiri Aprobetxamenduaren Arloko Presazko Neurriei buruzkoa	98.10.20	CDN	Pro-18/98
35 Orduko Laneguna eta Lanaldia Banatzearen Aldeko Neurri Publikoei buruzkoa	98.10.23	SPN	Pro-19/98
Ekitate eta Gizarte Eraginkortasunari jarraiki, Sorospen Kirurgiko Programatua epe egokian jasoko dela Bermatzeari buruzkoa	98.11.12	SPN	Pro-20/98
San Francisco Javier Zentro Psikogeriatrikoaren Funtzionamenduaren Eraentzari buruzkoa	98.11.12	SPN	Pro-21/98

Nafarroako Radio Televisión Española-ko Aholku Batzordea Sortu eta Arautzen duen 2/1985 Foru Legeko zenbait artikulua aldatzekoa	98.12.01	IU-EB	Pro-22/98
Alterne Lanbidea daukaten Pertsonen Eskubide Sozialak Aintzat Hartzeari buruzkoa	99.02.08	IU-EB	Pro-1/99
Alterne Lanbidea daukaten Pertsonen Eskubide Sozialak Aintzat Hartzeari buruzkoa	99.02.22	IU-EB	Pro-2/99
Oinarrizko Hezkuntzarako Testuliburuak arautzekoa	99.03.01	IU-EB	Pro-3/99
Etxebizitzen Arloko Presazko Neurrii buruzkoa	99.04.07	Ezker Abertzalea	Pro-4/99
Urriaren 10eko Errepideen Defentsari buruzko 11/86 Foru Legea aldatzekoa	99.08.09	EH	Pro-5/99
Pentsioak Osatzeari buruzkoa, beren Zenbatekoa Lanbidearteko Gutxieneko Soldatarekin Berdintzeko, eta Beste Laguntza Prestazio batzuk Hobetzeari buruzkoa	99.08.16	IU-EB	Pro-6/99
Oinarrizko Hezkuntzarako Testuliburuak arautzekoa	99.08.26	IU-EB	Pro-7/99
Bikote Egonkorren Berdintasun Juridikoari buruzkoa	99.09.30	IU-EB	Pro-8/99
Bikote Egonkorren Berdintasun Juridikoaren Legeari buruzkoa	99.09.30	IU-EB	Pro-9/99
Nafarroako Foru Erkidegoko Herriaren Defendatzaileari buruzkoa	99.10.14	SPN	Pro-10/99
Etxebizitzen Arloko Presazko Neurrii buruzkoa	99.10.18	EH	Pro-11/99
Azaroaren 23ko 10/1990 Osasunaren Foru Legea aldatzekoa, Nafarroako Sistema Publikoko Osasun Sorospena Foru Erkidegoko Etorkin guztiei zabaltzekoa	99.11.02	IU-EB	Pro-12/99
Artapen Farmazeutikoari buruzkoa	99.11.09	SPN	Pro-13/99
Estatuko Hizkuntzak Seiluetan eta Postako beste Salgaietan Erabiltzeari buruzkoa	99.12.28	CDN	Pro-14/99
Osasunbidea-ko Erizainen Karrera Profesionaleko Sistema arautzen duena	00.03.08	SPN	Pro-1/00
Foru Erkidegoak, entitate lokalek eta beren menpe dauden organismo autonomoek zuzenean edo zeharka kapitalean parte hartzen duten enpresei 6/1999 Legean aurreikusitako 35 orduetako la neguna finkatzearen aldeko Neurri Publikoei buruzkoa	00.03.10	SPN	Pro-2/00

Familien Bitartekaritzari buruzkoa	00.04.04	CDN	Pro-3/00
Farmazietako Bulegoak Arautzen dituen 16/1997 Legea, apirilaren 25ekoa, aldatzekoa	00.04.18	CDN	Pro-4/00
Nafarroako Errepideak Erabili eta Ustiatzeari buruzkoa	00.05.08	SPN	Pro-5/00
Nafarroako Barde Errealak Natur Parke Izendatzen dituen 10/1999 Foru Legea, apirilaren 6koa, aldatzekoa	00.05.24	Aierdi Fdez. de Barrena jn. (EA/EAJ)	Pro-6/00
Nafarroako Natur Guneen 9/1996 Foru Legea, ekainaren 17koa, aldatzekoa	00.05.24	Aierdi Fdez. de Barrena jauna (EA/EAJ)	Pro-7/00
Nafarroako Ikus Entzunezko Kontseilu Orokorrari buruzkoa	00.05.26	SPN	Pro-8/00

